



Alpes

Monte Rosako itzulua



Mikel Arrizabalaga

■ Breithorn, Pollux, Castor, Lyskamm...

MONTE ROSA mendi multzoa laú mila metroko gailur garaiez osatuta dago bere punturik gorenena *Dufourspitze* (4634 m) delarik, *Mont Blanc* eta gero Alpeetako altuena. Mendigune eder hau eta bere inguruan dauden beste batzuen magaletan zehar osatu dugu TMR zirkuitua, antzina komertziorako erabilitako bideetan barna. Lepo garaietara igoz eta haran basotsu eta pikoetatik jaitsiz bista ikusgarriez gozatu dugu. Mendi garaietatik esekitzen diren glaziarren handitasunak liluratu gaitu eta antzinako bideek zeharkatzen dituzten larre eta basoetan ikusi ditugun fauna eta flora alpinoak txunditu. Italia eta Suitzako alpetar herrixka dotoreek beren aurpegi ederrena erakusteaz gain, beren haranetan murgilduz naturaren indarraz eta handitasunaz ohartu gara. Ikusgarria oso!

■ Walser herriaren arrastoa

Saas Grund herrian eman diogu hasiera abentura txiki honi. Eguraldia lagun *Saas Feera* doan bidea utzi eta errekaen paraleloan hedatzen den xendan barrena *Saas Almagelera* heldu gara. Bide-seinaleek erakusten diguten norabidean *Saaser Vispa* bailaratik *Eiu Alpeko* basoetan murgildu eta *Mattmark* laku artifizialaren ondora heldu gara. Ertzetik ibiliz lakua puntatik puntara zeharkatu eta *Monte Moro* leporantz jo dugu. Hasierako xenda atsegina amaitu eta antzina Italiatik *Valais* haranera XV. eta XVI. mendeetan artikulak eta animaliak eramateko erabili ohi zen bidearen arrasto nabarmenak ikusi ditugu. *Walseren* antzinako bide honetatik igoera gogorra egin zaigu eta erne ibili behar izan dugu markak ez galtzeko. Bide arrokatsuan gora egin dugu lepoan dagoen Elurretako Ama Birjinaren (*Madonna delle*

Nevi) urre koloreko estatuaren ondora heldu arte (2786 m). Italia eta Suitza arteko muga egiten duen lepo honetatik dagoen ikuspegia oso zabala da, baina *Monte Rosaren* ekialdeko aurpegi ederrak erakarri du gure arreta.


- Zerbait jan eta edan ondoren, *Anzasca* haranean dagoen *Macugnagara* jaisteko teleferikoa erabili dugu, ordu asko baitaramatzagu ibilian eta mila eta bostehun metroko jaitsiera pikoak ditugun indar apurrak ahitzeko arriskua saihestu nahi izan dugu. 1265ean *Walser*ek fundatutako herrira heldu orduko, dutxatu eta ingurua ezagutzeko asmoz kalera atera gara. *Walser* herria Suitzako, *Valais* bailaratik heldu zen XIII. mendean. Herri transhumantea zen eta *Monte Rosaren* magalean finkatu zen, larre onak, baso trinkoak eta ur ugari aurkitu baitzituen bertan. Herri eder honetako kanposantuan *Monte Rosako* hormetan eta glaziarretan hildako mendizale batzuen hilarriak ikusi ditugu eta honen ondoan dagoen ezki zaharraren itzalean, inguruko herrietako ordezkariak bilerak egiten omen zituzten karguaren zina egiteko, gure Gernikako Arbolapean egin ohi den moduan. Ilunabarrean *Dufour* puntan eguzkiaren azken izpiak itzaltzen ikusi, afaldu eta ohera.

■ Alta Valsesiaren lurretan murgilduz

Egunsentiak *Monte Rosaren* bestelako ikuspegia ederra erakutsi orduko, gosalduta eta abian gara *Anzako* uharraren ondotik bailararen beheko aldera jaitsiz. *Issellako* auzoa gurutzatu eta laster heldu gara *Quarazzako* urtegi txikira. Basoan zehar, *Crocetto*ko meategietako aurriak atzean utzi eta *Alpe Pianako* larre eguzkitsuetara iritsi gara. Sigi-sagan primeran trazatutako bidetik erraz irabazi dugu altuera. Bide hau maiz konpondu dute,



EL macizo del Monte Rosa está formado por una larga cadena montañosa que alcanza su punto más alto en la cima del Dufourspitze (4.634 m), la segunda cima más alta de los Alpes después del Mont Blanc. Durante ocho días hemos rodeado el macizo atravesando sus empinadas laderas a través de antiguas rutas comerciales y hemos disfrutado ascendiendo a los altos collados que unen los profundos valles. Nos han fascinado los innumerables glaciares que se deslizan bruscamente hasta los atractivos pueblos suizos e italianos y hemos tenido la oportunidad de conocer de cerca la fauna y la abundante flora alpina. En pocas palabras, nos hemos sumergido en la vida diaria de estos parajes que nos han enseñado descaradamente toda su fuerza y grandeza.



■ TMR bide seinaleak hesola metalikoetan

baina konponketa garrantzitsuena militarrek egindakoa da, *Alpiniek* edo mendiko tropek egindakoa hain zuzen ere. Bide honi "*Sentiere della Libertà*" deitzen diote. 1943 urtearen amaiera aldera alemaniarrek penintsula okupatu ostean, preso aliatu kopuru handi bat askatu zuten italiar partianoek eta bertako jendearen eta gerrillari antifaxisten laguntzaz negu gordinean bide hauetaz baliatu ziren askatasuna lortzeko. Batzuek ez zuten lortu eta bidean geratu ziren eta laguntzaile zenbait ere harrapatu eta exekutatu egin zituzten.

Alpe Schenara heldu eta bide erosoak *Lanti* bibakera eraman gaitu. Aurrez aurre dugun azken malda pikoari ekin aurretik, zintzurak freskatu eta *Quarazzako* bailara ederrari so geratu gaitzaizkio. Sigi-sagari segituz *Turlo* lepora (2730 m) iritsi gara eta bertan dagoen harrizko mahai moduko batean hamaiketako egin dugu. Maldan behera jarri bezain pronto, ezkerrera utzi

ditugu *Turloko* lakuak eta primeran definitutako bidetik jaitsiera luzea egin dugu. *Grafenboden* eta *Fallerko* larreak igaro, *Sesia* uharrak gainditu eta *Pastore* aterpe dotorerara iritsi gara. Bertan dagoen terrazan eseri eta eskutan dugun garagardo freskoari zurrut eginez, aurrez aurre dugun ikuskizunari begira so geratu gaitzaizkio: *Gnifetti Punta* (4559 m) eta segidan lerrokatzen diren beste mendi gailurrek osatzen duten postal perfektua. Iluntzean, *Regina Margherita* aterpearen argiak (4554 m) zeru izartsuan txertaturik. Afaldu eta ohera.

Hirugarren eguna da eta gaurkoan ere bikaina izan da egunsentiaren argitasuna parez pare ditugun mendi garaietan islaturik. Espektakulu paregabea! Eguraldia lagun, *Alagna* herritik doan bide nagusia utzi eta bide alternatibo bat aukeratu dugu. *Sesia* errekararen ondotik *Crespi Calderinira* zuzentzen den igoera pikoari ekin diogu eta lehen izerdi tantak kopetatik irristatzen hasi orduko aterpearen ondora ailegatu gara. *Vallon delle Pisseko* larreak gurutzatu eta izen bera duen ur-jauziaren ondotik *Vincent Piramidearen* glaziarren azpiko aldera iritsi gara. *Alpe la Balmako* teleferiko zaharraren ondora iritsi gara eta zaila gertatu zaigu bide zuzena aurkitzea (eguraldi txarreakin ingurune zaila eta arriskutsua). Azkenean *Mullinik* tu dugu aurrez aurre dugun paretatzarraren oinera helduz. Eguraldiak bere aurpegirik onena erakutsi digu eta kostata, magal harritsutik igoz lortu dugu *Valico*



■ *Alpe Vardako zelaia*

Cimalegnako lepora iristea. Nekaturik gaude eta ur tragoxka bat egiten dugun bitartean behean, *Olen* bailaratik lainoa igotzen ari dela ikusi dugu eta goran, berriz, *Vicent Piramidea*, *Liskamm* eta *Castor* mendì garaian bista aparta. Oso egoera kaskarrean dagoen *Guglielmina* aterpea atzean utzi eta *Olen* lepoan (2881 m) hamaiketakoa egin dugu urrutian *Mont Blanc* eta *Gran Paradiso* agertzen direlarik.

Eski pistetatik beherantz egin dugu eta gure eskuinera *Lys* aterpea utziz *Gabiet* aterpera heldu gara. Dutzatu eta gertu dagoen *Gabiet* urtegiaren ertzeko belardian eseri gara atzean utzi dugun *Alta Valsesia* haranean zehar azken bi egun hauetan bete dugun bidea gogora ekarriz.

■ **Val d' Ayasko bideetan barna**

Gosaldu, abian jarri eta berehala hasi gara altuera galtzen. *Mos* bailaran ondo trazatutako xenda batek *Staval* herrira eraman gaitu. Herria zeharkatu eta basoan marrazten den eski pista luzea segituz *Alpe Sittenera* igo gara. Pista aspergarria da eta oraindik beste 500 metroko desnibela gainditu behar izan dugu *Bettaforcako* lepora iristeko (2672 m). *Ayasko* harana gure mendean, eski pisten ondotik doan xenda bilatu dugu. Goiz da eta *Alpe Forcara* iristean bertan dagoen laku txiki baten ertzean atsedena hartu dugu. Zirkuituko etaparik laburrenari amaiera emateko *Resy* auzorantz jo dugu eta bertan dagoen *Ferraro*

aterpean hartu dugu atsedena. Turistez beterik dago eta ilunabarra arte ez dugu lasaitasun eta bakerik izan. Bertako jabea den *Fausta*, urtero Nepal edota Tibetera joan ohi da eta Himalaiaren presentzia nabaria da. Paretetan ageri diren argazki ugarietan hango mendì eta jendearen bizimoduak islatzen dira. Urrutiko irudiak, irudi eder eta erakargarriak. Afaldu eta goiz oheratu gara, bihar egun luzea eta gogorra izango dugu eta.

Oso goiz altxa eta gosaldu ondoren, berehala jarri gara martxan. *St. Jacquesera* jaisten den bidea ezkerrean utzi eta basoan murgiltzen den bidetik *Pian di Verrazera* jaitsi gara. *Breithorn*, *Pollux* eta *Castor* mendiek menderatzen duten bailara eder honi bizkarra eman eta TMRren seinaleak segituz *Pian di Tzèrera* igo gara. Inguru bakartia bezain ederra. *Alpe Vardan* bat egin dugu *Fierytik* datorren bide zaharrarekin eta aurrerago *Alpe Maseko* goi larreetara. Paraje berezi hauetan xenda erosoak zeharka-meharka dabil errekaetako artean *Gran Lagoko* berde turkesa koloreko lakuaren ondora iritsi arte. Azken maldak *Colle Supérieur delle Cime Blanquen* (2981 m) utzi gaitu eta bertatik ikusi ahal izan dugu lehen aldiz *Cervino* edo *Matterhorn* mendì ospetsu eta bikainaren irudi osoa. Ohikoa duen txapelik gabe eskalatzailuek horrenbeste estimatzen dituzten bere ertz zorrotzak erakutsi dizkigu, harro. Pozaren pozez hamaika argazki atera eta aurrera egin dugu *Theodulpass* lepoaren bila.

Eguraldia lagun, *Plan Maison* aldera doan bide nagusia utzi eta *Cerviniako* eski pisten barrena altuera irabazi dugu bide

■ *Cervino*
(*Matterhorn*)
Tufterenetik



ofizialarekin bat eginez. TMRren bide-seinaleekin batera GSWarenak (Grand Sentier Walser) ikusi ditugu. *Cervinotik* gertuago gaude, baina lepora heldu aurretiko azken hirurehun metroko desnibela gogorra gertatu zaigu. Italia eta Suitzako mugan dagoen *Theodulpass* lepoan (3290 m) arnasa hartu eta betarik galdu gabe aurrera egitea erabaki dugu haize fina dabil eta. Aurrez aurre dugun glaziarrean zehar kontu handiz jaisten hasi gara, izotz plakak eta elur bigunak saihestuz. Arreta handia jarri behar izan dugu *Trockener Stegg* teleferikoraino hedatzen den glaziarrean, pitzadurak eta urtutako elurraren urek osatzen dituzten erreka anitzetatik ihesi, hala ere ezin erorketaren bat edo beste saihestu. Mokadu bat jaten dugun bitartean, bertatik dugun 360°ko panoramikaz gozatu dugu: *Monte Rosa* mazizoa osatzen duten *Breithorn* (4159 m), *Pollux* (4092 m), *Castor* (4223 m), *Lyskamm* (4527 m), *Gnifetti* (4563 m) eta *Dufour* (4609 m) puntak alde batetik eta *Dent Blanche* (4357 m), *Ober Gabelhorn* (4063 m), *Zinalrothorn* (4221 m) eta *Weisshorn* (4506 m) mendizarrak bestetik. Iparraldera begiratuz, *Mattertal* haranaren

ohartarazi digu, nonbait berrehun metroko zubi esekia hautsita dago eta ezin da aurrera egin. Zorte txarra! *Randa* herriraino jaitsi behar izan dugu eta gero, berriz, *Europahütte* aterperaino igotzeko beste zortziehun metroko desnibela gainditu (2.265 m). Soseguz egin dugu, erritmo egokian eta aterpera heldu orduko gure ahaleginak bere saria izan du: terrazan eseri eta garagardo fresko bat eskutan dugularik, gure parean altxatzen den *Weisshorn* mendi bikainaren ertz luze eta zorrotzaren ikuspegiak gozatu dugu. Aterpeko nagusiak prismatikoak hartu eta debeku-seinaleei muzin egin dioten mendizale talde bati lagundu behar izan dio aterperainoko bide zaharra eta hondatua bilatzen. Arriskutsua oso. Dutzatu, afaldu eta ohera.

Aurrekoetan bezala, zazpigarren egunaren egunsentiak inguruaren irudi polita erakutsi digu. Gosaldu eta abiatu bezain pronto, Himalaian aurki genezakeen zubi moduko bat zeharkatu eta gero, *Dom* mendiaren magaletan elur-jausi eta ekaitzen ondorioz bidera eroritako arrokek zaildu egin dute gure ibilera. Kasik mila metroko amildegien ertzetik igaro eta gero, ez dugu



■ Cervino (Matterhorn) Bianche lepoetik

ekialdean *Strahlhorn* (4190 m), *Rimpfischhorn* (4199 m), *Allalinhorn* (4027 m), *Alphubel* (4206 m), *Täschhorn* (4491 m) eta *Dom* (4479 m). Eta bi mazizo erraldoi hauen artean *Cervino* edo *Matterhorn* (4476 m) mendiaren piramide perfektua. Mendiaren sinfonia armoniatsua osatzen duten postal paregabea. Ederra bezain gogorra suertatu zaigu etapari amaiera emateko, *Zermatteraino* teleferikoa hartzea erabaki dugu, herria ezagutu eta bertako giroaz gozatzeko gogotsu baikaude.

■ Europaweg eta Höhenweg

Egunguntian, *Zermatteko* hotel txikiaren balkoitik *Cervino* edo *Matterhorn* mendi ospetsuaren *Zmutt*, *Hörnli* eta *Furggen* ertze osatzen duten piramide perfektuari begira eman ditugu seigarren egunaren lehen minutuak. Gosaldu ostean, *Europaweg* bidea puntatik puntara egiteko asmoz *Sunneggara* lur azpiko tren kremlera batean igo gara, bertatik bailara osoaren ikuspegi bikaina baitago. Argazki panoramiko dezente atera, motxilak bizkarreratu eta martxan jarri gara. *Mattertal* haranaren gain aldetik hedatzen den bide eder hau balkoi naturala da eta primeran balizaturik dago. *Tufteren* auzoa atzean utzi eta geroz eta airetikoagoa den xendan barrena *Ottavien* auzora iritsi gara, *Allalinhorn* eta *Rimpfischhorn* mendi garaien glaziarren azpi aldera. Leku polita eta lasaia eguneko hamaiketako egiteko.

Inguruaz gozaten ari gara, baina aurrerago hesola metaliko batean jarrita dagoen ohar batek, bidea moztuta dagoela

lasaitasunik hartu *St. Niklaus* estatuaren ondora iritsi arte. Atsedean laburraren ostean, baso ederraren itzalean *Gasenried* herriraino jaitsi gara eta segidan *Grachenera*. Teleaulkiaren ondoan dagoen mahai batean urdaiazpikoa ogiarekin jan eta martxan jarri gara *Hannigalp* aterpera igotzeko dauden bostehun metroko desnibela gainditzeko asmoz. *Zum See* atzean utzi eta eski pistatik barrena lortu dugu gaurko etapa honi amaiera ematea (2.121 m). Hemen amaitzen baita *Europaweg* izeneko bide berezi eta ederra, eta bihar, berriz, zirkuitua ixteko *Saastal* haranaren gainetik marrazten den *Höhenweg* bideari helduko diogu. Gauetz ekaitza lehertu da erabat hutsik dagoen eski estazioan eta gu bakarrik geratu gara aterpean.

Gure laguna den eguzkiak ez digu gaurkoan ere hutsik egin eta gosaldu ondoren, gogotsu eman diogu hasiera azken etapa honi. Berehala ohartu gara bide hau bestea baino berdeagoa eta oparoagoa dela. Ibilbidea primeran trazatuta egon arren, zenbait tartetan kable edota sokak jarri dituzte, batik bat amildegien gertutasunak hala eskatzen duenean. Bide honetan basahuntz alpetar eta chamois ugari ikusi ditugu, bertako larreetan lasai bazkatzen. Mendiak dituen irtengune eta sartuneak inguratuz aurrera egin dugu gogotsu. *Saas Grund* herria ikusi orduko, zerua estali egin da eta *Dom* mendiaren gain aldean lehertu da ekaitza. Zortzi egunez eguraldi ona izan dugu lagun, eta azkenean tximista eta trumoiak motxilan ondo gordeta daramagun goretexa janztera behartu gaitu. Ordu bat beranduago helmugara iritsi gara, eguzkiaren izpiek berriro bazterrak argitzen hasi diren bitartean. Akabo! Gozatu dugu!

Walsерweg edo Walsер bidea

WALSER bidea *Valtournenche*, *Ayas* eta *Lys* haranak zeharkatzen dituen ibilbidea da. Bide hau egiteak, *Walsер* herriak lur hauek kolonizatzeo Erdi Aroan egin zuen bidea suposatzen du. Herri transhumante hau Suitzako *Valais* haranetik heldu zen XI eta XII. mendeetan zehar eta *Monte Rosaren* magalean finkatu zen, larre onak, baso trinkoak eta ur ugari aurkitu baitzituen bertan. Herri asko fundatu zituzten eta horietan oraindik *stadel*-ak ikus daitezke, harrizko disko bat duten egurrezko onddo



■ Joan Mari eta Mikel mendizaleak

moduko batzuetan oinarria duten egurrezko eraikinak. Antzina epaitegi eta kartzela funtzioak betetzen zituen *stadel* zaharrenetako bat (1547) *Gressoney-Saint-Jeanen* dago, *Greschmatto* herrian hain zuten ere. *Monte Rosaren* magalean izan zuten bizitza oso gogorra izen zen. Ogia urtean behin egiten zuten eta ogi biribilak sikuak mantentzen zituzten gerora zopatan bigunduz. Horrela egin ezean, hezetasunak bihia usteltzeko arriskua zuten.

Beren jatorriko lurraldeekin izandako harremani esker, *Walsер*-ek mendeetan zehar mantendu ahal izan dituzte beraien tradizioak. Horren lekuko dira gaur egun, okasio berezietan erabiltzen dituzten jantziak, urrezko filigranaz egindako buruko edo kofia baliotsuak eta herritar batzuek oraindik hitz egiten duten alemaniar-suitzar dialektoa den *Walsер* hizkuntza. Gaur egun hizkuntza hau erabiltzen duten zenbait komunitate daude Suitzan (*Valais*, *Berna*, *Grisonia* eta *Tessinoko* Kantoietan), Italia, Austria eta Liechtenstein. 25.000 lagun inguruk ezagutzen dutela uste da (10.000 Suitzan, 3.000 Italian, 10.000 Austrian eta 1.500 **Liechtensteinen**). Azken urtetan atzerakada handia izan du, hitzun gazte askok lurraldearen arabera, italiara edo aleman-suitzar hizkuntza hobetsi baitute *Walsер* hizkuntzaren ordeaz. □

Datuak

	Etapa	Desnibela igo	Desnibela jaitsi	Denbora
1	Saas Grund – Macugnaga	1.324 m	129 m	5 ordu 30'
2	Macugnaga – Pastore aterpea	1.489 m	1.161 m	6 ordu 20'
3	Pastore aterpea – Gabiet aterpea	1.315 m	545 m	6 ordu 10'
4	Gabiet aterpea – Ferraro aterpea	869 m	1.150 m	5 ordu 10'
5	Ferraro aterpea – Zermatt	1.496 m	684 m	6 ordu 10'
6	Zermatt – Europahütte aterpea	1.172 m	1.174 m	7 ordu 05'
7	Europahütte aterpea – Hannigalp aterpea	1.001 m	1.152 m	6 ordu 45'
8	Hannigalp aterpea – Saas Grund	617 m	1.195 m	5 ordu 30'

Mendizaleak

Mendiak eta Herriak antolatutako ibilaldi honetan parte hartu duten taldekideak Joan Mari Torrealdei eta Mikel Arrizabalaga izan dira.

Bibliografia

- 1- *Tour of Monte Rosa*. Hilary Sharp. Cicerone, 2006.
- 2- *Cervino, Matterhorn e Monte Rosa*. Giulio Beruto. Istituto Geografico Central, 1996.
- 3- *Cervino Monte Rosa*. Alessandro Gagna / Marco Milani. Priuli & Verlucca, 2007

Kartografia

1- Kompass

- Zermatt – Saas Fee (117) 1:50.000
- Monte Rosa (88) 1:50.000
- Breuil – Cervinia – Zermatt (87) 1:50.000

2- Istituto Geografico Centrale (IGC Italia)

- (5) Cervino-Matterhorn e Monte Rosa 1:50.000
- (10) Monte Rosa. Alagna e Macugnaga 1:50.000

3- Office Federal de Topographie (Suiza)

- 105 Valais-Wallis. 1:100.000
- 5028 T Monte Rosa Matterhorn. 1:50.000
- 5006 Matterhorn Michabel. 1:50.000
- 2515 Zermat. Gornergrat. 1:25.000
- 1328 Randa 1:25.000
- 1329 Saas. 1:25.000
- 1347 Matterhorn 1:25.000
- 1348 Zermatt. 1:25.000
- 1349 Monte Moro. 1:25.000

4- Swiss Tour Monte Rosa. 1:25.000. Carte de randonnée pédestre.

5- Parc Natural Alta Valsesia. 1:25.000. Deagostini.

Web guneak

Suitza

- <http://www.tmr-matterhorn.ch>
- <http://www.bordierhuetten.ch>
- <http://www.randa.ch/europahuetten.html>
- <http://www.holidaynet.ch/gandeghuetten>
- <http://www.hannigalp.ch>
- <http://www.zermatt.ch>
- <http://www.saas-fee.ch>
- <http://www.randa.ch>
- <http://www.matterhornvalley.ch>
- <http://www.graechen.ch>
- <http://www.kinhuetten.ch>
- <http://www.taeschhuetten.ch>
- <http://www.eurpaweghuetten.ch>
- <http://www.meteosuisse.admin.ch>

Italia

- <http://www.montecervino.it>
- <http://www.cervinia.it>
- <http://www.macugnaga.it>
- <http://www.alagna.it>
- <http://www.rifugioguidefrachey.it>
- <http://www.rifugiogabiet.it>
- <http://www.rifugiogiuglielmina.it>
- <http://www.rifugiopastore.it>
- <http://www.montemoropass.it>
- <http://www.zumstein-macugnaga.it>
- <http://www.rifugioferraro.com>
- <http://www.caimacugnaga.org>
- <http://www.meteo.it>

- *Dent Blanche*, *Ober Gabelhorn*, *Zinaltrohorn*, *Weisshorn*,... *Theodulpasseko* glaziarretik

